

## IRAGARKIA, LANGILEAK ALDI BATERAKO KONTRATATZEKOA

Nafarroako Gobernu Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Departamentuarekin izenpeturiko hitzarmenean, Elizak immatrikulaturiko ondasunen zerrendan balizko herri-ondasunak dauden ikertzeko NUKFri esleitzen zaizkion ekintzak gauzatzeko, ezinbestekoa da aldi baterako pertsona espezializatu bat kontratatzea honako oinarri jarraiki:

### OINARRIAK

**LEHENBIZIKOA. - Lanpostuaren profila. Eskaturiko titulu akademikoa eta lanpostuaren funtzioak.**

- 1. Titulu akademikoa.** Historiako Gradua edo Informazioko eta Dokumentazioko Gradua eskatuko da.
- 2. Zereginak.** Honakoak izango dira lanpostuaren zereginak:
  - Ikerketa historikoa egitea udal artxiboetan edo Eliza Katolikoak immatrikulaturiko ondasunen beste edozein dokumentu-funtsean, azken horiek alde aurretik identifikaturik egongo direlarik.
  - Aurretik adierazitako dokumentazio hori interpretatzea.
  - Herri-ondasun izateko zantzuak dituzten immatrikulaturiko ondasun bakoitzeko txosten bat egitea.

Zeregin horiek Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Departamentuaren teknikariekin lankidetzan egingo dira eta hitzarmenean aurreikusitako Jarraipen Batzordeak gainbegiratuko ditu.

**BIGARRENA. - Kontuan hartuko den esperientzia eta prestakuntza.**

**Honakoak izango dira kontuan hartzekoak:**

- Antzeko lanetan eskarmentua izatea bai administrazioetan edo izaera publikoa duten beste erakunde batzuetan ere.
- Artxiboen eta dokumentuen ikerketa eta kudeaketa arloan prestakuntza osagarria izatea.

### **HIRUGARRENA. - Kontratazioaren araubidea eta ordainsariak.**

- 1. Araubide juridikoa.** Aldi baterako lan kontratua izenpetuko da hautaturiko pertsonarekin. Kontratuak hasiera bateko lau hilabeteko iraupena izango du eta, gehienez ere, 12 hilabete luzatu ahalko da.
- 2. Ordainsariak.** Nafarroako administrazio publikoetan A mailari dagokion hasierako soldata jasoko da.

### **LAUGARRENA. - Eskaeren aurkezpena.**

Eskaerak [NUKFko egoitza elektronikoan](#) aurkeztu beharko dira, eskabide orokor bidez eta **otsailaren 28 arte, egun hori barne.**

Eskabidearekin batera, 2. oinarrian adierazitako esperientzia eta prestakuntza egiaztatzen dituzten agiriak aurkeztu beharko dira.

### **BOSGARRENA. - Hautapen-prozesua.**

Eskaerak azertu ondoren, eskatutako baldintzak betetzen dituzten egiaztatuko da. Horren ondotik, hautaturiko pertsonarekin bakarkako elkarrizketa bat egingo da.